



Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2026/6

**DEIALDIA, TOKIKO ARTISTA GAZTEAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK BANAKAKO
EBALUAZIO-ARAUDEAN EMATEKOA. 2026. URTEA**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela bete dadin Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO](#)[n](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

Bestalde, 2026ko ekitaldirako Iruñeko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da gazteez osatutako musika taldeei, antzerki konpainiei, elkarteei eta kolektiboei babesa ematea, baita gazteak lan-munduan sartzea erraztuko duten tresnak eskuratzen laguntzea ere. Horri dagokionez, dirulaguntza honek bilatzen du, hain zuzen, tokiko artista gazteak bultzatzea eta babestea. Plan horrek, 7. ildo estrategikoan (gazteria), dirulaguntza-lerro espezifiko bat jasotzen du: tokiko artista gazteak babesteko dirulaguntza-deialdia. Hortaz, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, eremu eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da laguntza-sistema bat ezartzea Iruñeko gazteen sormen kultural eta artistikoa sustatzeko zenbait diziplina artistikotan, hala nola antzerkian, argazkigintzan, arte plastikoetan eta musikan, betiere oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen badituzte.

2. Deialdiaren helburua:

Deialdi honen helburua da antzerkiarekin, argazkigintzarekin, arte plastikoekin edo musikarekin zerikusia duen jarduera artistikoren bat egiten duten Iruñeko gazteei babesa ematea. Horretarako laguntza ekonomikoak emanen zaizkie honako hauetatik eratorritako gastuak ordaintzeko: materiala eskuratzea (erosi edo alokatzea), jarduera artistikoa garatzeko egoitza gisa erabiltzen den lokalaren alokairua edo egindako lana erakusteko erabiltzen den beste espazio baten alokairua.



3. Diruz lagungarriak diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Dirulaguntza emanen zaie hura eskatu eta deialdi honen D apartatuan ezarritako betekizunak betetzen dituzten gazteei eta gazteek osatutako irabazi-asmorik gabeko elkarteei, eta honako hauekin zerikusia duten gastuak ordaintzeko erabiliko da: jarduera artistikoa garatzeko behar den materiala eskuratzea (erosi edo alokatzea, beharrezkoa balitz), jarduera artistikoa garatzeko egoitza gisa erabiltzen den lokalaren alokairua edo egindako lana erakusteko erabiltzen den beste espazio baten alokairua. Diruz lagungarriak diren jarduerak egiteko epea 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra izanen da.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Espedienteak izapidetuko dira eskaerak jaso ahala, udal-erregistroan sartzen diren hurrenkeran.

Dirulaguntza eskaera-hurrenkeraren arabera emanen da, deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen direla kontuan hartuta. Dirulaguntza emanen da eskaerei erantzuteko aurrekontu-kontsignazioak iraun bitartean.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 12.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aipatu kontsignazioa agortzen bada eta Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko Gazteria Unitatean 2026. urteko ekitaldi honetarako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, erabilgarri dauden zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

Kasu horretan, gehikuntza horren onuradun izanen dira deialdi honen betekizunak bete eta eskaerak aurkezteko epearen barruan aurkeztu diren eskaerak, baldin eta ez badute dirulaguntzarik jaso kreditu eskuragarria agortu izanaren ondorioz.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/33702/480000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Elkartepertsona bakoitzak jasoko duen dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez, 1.200 eurokoa izanen da 2026ko deialdi honetan.

Diruz lagungarria den kontzeptu bakoitzeko gehienez jasotzen ahal diren zenbateko hauek ezartzen dira, betiere aurreko paragrafoan adierazitako banakako gehieneko zenbatekoa errespetatuz:

- Materialak: 500 euro.
- Egoitzaren/ohiko lokalaren alokairua: 720 euro, hilean 60 euro elkartepertsona bakoitzeko.
- Ohiko egoitzaz bestelako aretoen/espazioen alokairua: 200 euro.

4. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta: 12.000 € 2. urtekoa: € 4. urtekoa () €



1. urtekoa () € 3. urtekoa () €

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1.- Onuradun izaten ahalko dira banaka jarduten duten gazteak, nortasun fisiko edo juridikoa izan, bai eta elkarte bat eratzen duten gazteak ere, nortasun juridikoarekin edo gabe.

2.- Dirulaguntzaren onuradun izanen dira, Dirulaguntzei buruzko Ordenantzaren 8.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen taldeak –publikoak zein pribatuak izaki–, eta berariaz adierazi beharko dute, hala eskaeran nola dirulaguntza emateko ebazpenean taldekide bakoitzak betetzeko hartzen dituen konpromisoak eta horietako bakoitzari aplikatu behar zaion dirulaguntzaren zenbatekoa. Taldeotako kideak, bestalde, onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan. Taldea ezin izanen da desegin harik eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 47. eta 58. artikuluetan ezarritako preskripzio epea iragan arte.

3.- Banaka aurkezten diren gazteek, dirulaguntzaren onuradun izateko, 14 eta 30 urte bitartean izan behar dituzte. Halaber, Iruñean erroldaturik edo bertan bizi behar dute; azken kasu horretan, errentamendu-kontratuaren bidez egiaztatu behar dute.

4.- 10 pertsona baino gutxiagoz osatutako elkarteek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Elkartearen egoitza sozial eta fiskala Iruñean edukitzea.
- Kideen bi herenek, gutxienez, 14 eta 30 urte bitartean dituztela egiaztatzea. Bi heren horien kalkulua egitean, lortzen den emaitza zenbaki oso bat ez denean, ondoren zehazten den moduan biribilduko da:
 - Lehenengo zifra hamartarra 5 baino txikiagoa bada (1,2,3 edo 4), horren hurrengo zenbaki osora biribilduko da.
 - Lehenengo zifra hamartarra 5 edo handiagoa bada (5,6,7,8 edo 9), horren hurrengo zenbaki osora biribilduko da.
- Egiaztatzea elkartea osatzen duten pertsonen erdiek, gutxienez, Iruñean erroldatuta daudela edo, bestela, bizilekua bertan dutela egiaztatzea, errentamendu-kontratu bidez.

5.- 10 pertsona baino gehiagoz osatutako elkarteek aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dituzte:

- Elkartearen egoitza sozial eta fiskala Iruñean edukitzea.
- Erroldaren eta adinaren irizpideei dagokienez, egiaztatuko dira erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz (VIII. eranskina).

6.- Elkartekide berak dituen talde bat ezin izanen da izen ezberdinekin aurkeztu; hala ere, pertsona bat aldi berean bi elkarte ezberdinetako kide izan daiteke, halakorik gertatuz gero.

Baldintza horiek dirulaguntza indarrean dagoen bitartean mantendu beharko dira, eta Iruñeko Udalari jakinarazi beharko zaizkio emandako dirulaguntza itzultzea ekartzen ahal duten gertatutako aldaketa



guztiak.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

1.- Dirulaguntza jasotzen duten pertsona edo elkarteek benetan erabili beharko dute lortutako dirulaguntza fakturak ordaintzeko, 2026ko abenduaren 31ra arte.

2.- Onuradunek dirulaguntza emateko betekizunen aurka egin dezakeen edozein aldaketa jakinarazi beharko dute.

3.- Udalak ez du bere gain hartuko alokatutako instalazioak edo baliabideak gaizki erabiltzearen gaineko erantzukizunik, ez eta erabiltzen dituzten establezimenduen esparruan egiten diren jarduera partikularretatik eratortzen ahal diren erantzukizun zibil edo penalik ere.

4.- Iruñeko Udalak beharreko agiri guztiak ofizioz egiaztatu eta/edo eskatzen ahalko ditu, dirulaguntzaren onuradun izateko oinarri hauetan eskatutako baldintzak egiaztatze aldera.

5.- Berdintasun-printzipioa txertatzea genero-berdintasunean aurrera egiten edo hura lortzen eragin positiboa izan dezaketen Udalaren dirulaguntzaren xede diren jardueretan.

6.- Onuradunek egindako agiri, publizitate, irudi zein material orotan hizkuntza ez-sexista erabili beharko da, eta ekidin emakumeen irudi baztertzailerik eta estereotipo sexista oro; halaber, honako balio hauek sustatuko dira: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero-rol eta -nortasun askotarikoak.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen



BANAKAKO EBALUAZIOA

tamaina berekoa izanen da, gutxienez.

- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate- oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☒ BAI ☐ EZ

Xede-epea: Ezin izanen da bost urte baino txikiagoa izan erregistro publiko batean inskribatzen ahal diren ondasunez bezainbatean, eta bi urte baino txikiagoa gainerako ondasunei dagokienez.

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurkeztutako hasierako proposamena aldatu behar denean, aldaketak egiten ahalko dira, baldin eta haren izaera aldatzen ez badute eta, aldi berean, dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarrak aldatzen ez badituzte.

Aldaketa horiek udal teknikariei jakinarazi beharko zaizkie eta VII. eranskinean jaso beharko dira. Eranskin hori deialdi honen Ñ.1 atalean adierazitako gainerako agiriekin batera aurkeztu beharko da, justifikazioaren unean.

Behar bezala justifikatu gabe egiten diren aldaketak ez dira onartuko eta, beraz, ez dira diruz lagunduko.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak non aurkeztu:

Administrazio Publikoarekiko harremanak elektronikoki edukitzera beharturik ez dauden pertsona fisikoek haien eskaerak telematikoki aurkeztu ahal dituzte Iruñeko Udalaren Egoitza Elektronikoa (www.pamplona.es/eu), edo aurrez aurre Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia. Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko Monasterioaren k. 2, behea; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapatería k. 40, behea), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako beste edozeinetan.

Nortasun juridikoa duten entitateek, bai eta Administrazio Publikoarekiko harremanak elektronikoki edukitzera beharturik dauden nortasun juridikorik gabeko beste entitateek eta pertsona fisikoek ere eskaera telematikoki aurkeztu beharko dute nahitaez, Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa (www.pamplona.es/eu).

2. Eskabideak aurkezteko epea:

Bi epe ezarri dira eskabideak aurkezteko:

LEHEN EPEA: deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina



eta 2026ko maiatzaren 31ra bitarte, egun hori barne. Eskabide horiek urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izanen dute, eta dirulaguntza egun horretatik aitzina jasotzen ahalko dute, betiere fakturak eta ordainagiriak horretarako ezarritako epea amaitu baino lehen egiaztatzen badira (Ñ.2 apartatua).

BIGARREN EPEA: ekainaren 1ean hasi eta 2026ko urriaren 10ean amaituko da. Epe horretan egindako eskabideek ekainaren 1era arteko atzeraeragina izanen dute, eta dirulaguntza egun horretatik aitzina jasotzen ahalko dute, betiere fakturak eta ordainagiriak horretarako ezarritako epea amaitu baino lehen egiaztatzen badira (Ñ.2 apartatua).

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordezkariaren adierazpena aurkeztu ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adierazita noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiriari dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoa.

Nortasun juridikorik gabeko elkarrekin eta/edo pertsonen honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Kide guztien NANA edo legearekin bat hori ordezkatzeko duen agiria.

Juridikoki eratutako elkarrekin eta/edo pertsonen honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Sozietatearen eraketa-egiaztapena, betiere, dagokion erregistroan izena emanda.

- Kide guztien NANA edo legearekin bat hori ordezkatzeko duen agiria.

- Identifikazio Fiskaleko Zenbakia egiaztatzeko txartela (IFZa).

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.



BANAKAKO EBALUAZIOA

c) Honako agiri hauek, eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzeak:

☐ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☒ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzekoa. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen tributu-betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.

Ofizioz egiaztatuko da Iruñean erroldaturik daudela, D apartatuan ezarritako betekizunekin bat.

Iruñeko Udalak dirulaguntza honen onuradun diren eskatzaileek betekizunak betetzen dituztela eta egiazkoak direla egiaztatzeak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatzen ahalko ditu.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –publikoa zein pribatua–, eskabidean berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen batean bildu beharko dira beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, eta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatu behar du.

IV. eranskinarekin bat (Deskribapen-memoria) entregatuko da.

g) Aurrekontuak: dirulaguntzaren xede den materialari dagozkion gastu guztien aurrekontuak aurkeztu beharko dira. Aurrekontuetan sartu beharko dira dirulaguntzaren eskaeran aipatutako materialak erosiko diren establezimenduaren datuak, bai eta produktuen eta beren prezioaren deskribapena ere. Halaber, ohiko egoitzakoak ez diren aretoak/espazioak alokatuz gero, dirulaguntzaren xede den horri dagozkion aurrekontuak ere aurkeztu beharko dira.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuek, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN EBALUAZIOA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedientearen kontuan harturik, eta ebatzeko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Bi hilabete.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako



BANAKAKO EBALUAZIOA

hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen eta Udalaren webgunean (Gardentasuna eta Open Data atalean).

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek dira diruz lagungarriak:

I. MATERIALAK: gastu-kontzeptu honetan sartzen da dirulaguntzaren xede den jarduera garatzeko beharrezkoak diren materialak erostea edo alokatzea, beharrezkoa izanez gero. Hau da, aurkezten diren gastuek lotura zuzena izan behar dute pertsona edo elkarte eskatzaileak egiten duen jarduera artistikoarekin, eta hala deskribatu behar da eskaera egiten den unean entregatzen den deskribapen-memorian.

Gastu-kontzeptu horretarako, 500 €-ko gehieneko kopuru individualizatua ezarri da.

II. EGOITZA ALOKATZEA (OHIKO LOKALA): kontzeptu honen barruan sartzen dira ohiko egoitzatzat jotzen diren entsegu-aretoak edo jarduera artistikoa garatzeko lokalak alokatzetik eratorritako gastuak. Onuradun bakoitzari gehienez 60 euroko dirulaguntza emanen zaio hilean, betiere alokairuaren faktura zenbateko horren berdina edo handiagoa bada. Areto edo lokalek dagokien lizentzia izan eta legeko baldintzak bete beharko dituzte, eta hori ofizioz egiaztatuko da. Establezimendu horien egoitza Iruñerrian egon da.

Gastu-kontzeptu honetan, 720 euroko banakako gehieneko zenbatekoa ezartzen da horretarako ezarritako lehen epearen barruan (urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra) egiten diren eskaerentarako. Bigarren epean (ekainaren 1etik urriaren 10era) aurkezten diren eskaerentarako, gehienez ere 420 €-koa izanen da banakako gehieneko zenbatekoa (60 euro 7 hilabeteko).

III. OHIKO EGOITZAZ BESTELAKO ARETOEN/ESPAZIOEN ALOKAIRUA: kontzeptu honen barruan sartzen dira eskatzailearen jarduera artistikoa erakusteko aretoak (kontzertu-aretoak, erakusketa-aretoak, etab.)



BANAKAKO EBALUAZIOA

alokatzetik eratorritakoak, baldin eta ohiko espazioa ez badira. Lokal horiek dagokien lizentzia izan eta legezko baldintzak bete beharko dituzte, eta hori ofizioz egiaztatuko da.
Gastu-kontzeptu honetan banakako gehieneko zenbatekoa 200 € izanen da.

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen 2.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☒ BAI ☐ EZ

Honako hauek ez dira inoiz gastu diruz lagungarritzat joko:

Aurrez aipatu ez den beste edozein gastu, hala nola ura, argindarra, konponketak edo erabilitako establezimenduak bere baldintza partikularretan eskatu eta bezeroek bere gain hartu behar duten beste edozein erantzukizun.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea:

- LEHEN EPEAren barruan aurkeztutako eskabideen kasuan, diruz lagungarriak izanen dira 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean benetan egindako gastuak.

- BIGARREN EPEAren barruan aurkeztutako eskabideen kasuan, diruz lagungarriak izanen dira 2026ko ekainaren 1etik abenduaren 31ra bitartean benetan egindako gastuak.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoak:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xede den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

☐ BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialditik kanpo geldituko dira Iruñeko Udalaren beste deialdi batzuetako xede bererako dirulaguntzak jasotzen dituzten eskaerak. Era berean, ez dira diruz lagungarriak izanen haien izaera edo edukia dela-eta Udalaren dirulaguntza-deialdi berariazkoagoen xede izaten ahal diren eskaerak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-



BANAKAKO EBALUAZIOA

sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☒ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

- Justifikazioa behar bezala egiteko, dirulaguntzaren onuradunek aurkeztu beharko dituzte dagozkien fakturak, ordaindu izanaren egiaztagiriarekin batera, eta dirulaguntza ordaintzeko eskaera. Ordainagiriak gastua benetan egin dela egiaztatzen du, eta beharrezkoa izanen da kasu guztietan, dagokion fakturarekin batera.

- Gazteria Unitateko lantalde teknikoak emandako datuen egiazkotasuna berraztertuko du, eta ordaintzeko ebazpen-proposamena organo eskudunari igorriko dio.

☐ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak. Zor dituzten kopuruak dirulaguntzari dagozkionekin konpentsatuko dira, emandako dirulaguntza osoarekin edo zorrari dagokion zatiarekin.

Onuradunek dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko dute, osorik edo hein batean, justifikazio egokirik aurkeztu ezean, edo azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean edo Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean aurreikusitako itzulketa-zioen bat gertatzen bada.



2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☐ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orriak aurkeztea:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistema bat:

Justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- VII. eranskina (eskabidean aurkeztutako hasierako proposamenari aldaketarik egin bazaio aurkeztuko da soilik).

- VIII. eranskina, "Gastuen eta fakturen zerrenda".

- Diruz lagundutako aldian egin diren eta diruz lagungarriak diren gastuen jatorrizko fakturak (fakturak dirulaguntzaren onuradun den pertsona edo elkartearen izenean egonen dira onartuak izateko).

- Benetan egindako gastuen ordainagiriak (ordainagiriak beharrezkoak dira aurkeztutako fakturak ordaindu direla egiaztatzeko). Ordainagirietan dirulaguntzaren onuradun den pertsonaren edo elkartearen datuak agertu beharko dira.

Agiri horiek entregatu beharko dira Iruñeko Udalaren udal-erregistroetan, edo izapide telematikoaren bidez www.pamplona.es/eu webgunean, deialdi honen G apartatuan jasota dagoen bezala. Justifikazio telematikoa egiteko, X. eranskina aurkeztu beharko da gainerako dokumentuekin batera.

Gazteria Unitateak justifikazio-txosten bat igorriko du justifikazio-aldi bakoitza amaitzen denean, bertan sartuta dirulaguntzaren onuradunei dagozkien datuak, onartutako fakturei buruzko datuak eta egin beharreko ordainketak justifikatzen dituen beste edozein datu.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:



BANAKAKO EBALUAZIOA

Deialdiak eskaera egiteko bi epe ezartzen dituen bezala, justifikaziorako ere bi epe ezartzen dira:

- **LEHEN EPEAN** (urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra) egindako eskaeretarako, justifikazioaren azken eguna 2026ko ekainaren 30a izanen da, egun hori barne, epe horretan egindako gastuetarako. Ekainaren 1etik aurrera egindako gastuetarako, justifikazioa aurkezteko azken eguna 2026ko abenduaren 31 izanen da, egun hori barne.
- **BIGARREN EPEAN** (ekainaren 1etik urriaren 10era) egindako eskaeren kasuan, justifikazioaren azken eguna 2026ko abenduaren 31 izanen da, egun hori barne.

Ezarritako epearen barruan aurkezten ez diren fakturak eta ordainagiriak, ez dira onartuak izanen eta, hortaz, ez dira ordainduko.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

Pertsona/elkarte onuradunek jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte, dirulaguntzaren onuradunek hura jaso eta dirulaguntzaren xedea ez dutela gauzatu frogatzen bada.

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKOA.**



☒ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAI NEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**
DIRULAGUNTZA ESKATZEN DENEAN ENTREGATU BEHARREKO ERANSKINAK

IV. ERANSKINA: Deskribapen-memoria.

V. ERANSKINA: Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea (pertsona edo elkartearen lehenengo aldiz aurkeztu bada Iruñeko Udalararen deialdi honetara edo kontu-zenbakia aldatu bada). V. eranskina betetzeko argibideak erantsi dira.

VI. ERANSKINA: Erroldaren eta adinaren neurriak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (10 kide baino gehiagoko elkarteendako soilik).

JUSTIFIKATZERAKOAN ENTREGATU BEHARREKO ERANSKINAK

VII. ERANSKINA: Sartutako aldaketen justifikazioa (eskabidean aurkeztutako hasierako proposamenari aldaketarik egin bazaio aurkeztuko da soilik).

VIII. ERANSKINA: Entregatutako fakturen zerrenda.

IX. ERANSKINA: Diru-sarreraren adierazpena.

X. ERANSKINA: Erantzukizunpeko adierazpena: justifikazio telematikoa (justifikazioa bide elektronikoz aurkeztu dutenendako).